

Santa Barbarako tiro-lekuan hilean 2 tirada egingo dira gehienez

■ Santa Barbarako tiro-lekuaren araudi berria atzo onartu zuen udalak Gobernu batzordean ■ Aurretik Txantxangorri elkarte eta Latsunbeko auzo elkartearen arteko akordioa egon da.

ASTEAZKENEKO Gobernu batzordeak Santa Barbarako tiro lekua araudi berria onartu zuen. Hemendik aurrera, hilean gehienez bi tiraldi egingo dira, eta bi asteko tartea egongo da batetik bestera.

Entrenamendu edo tirada bereziak eta abar ere kalendario horretan egingo dira eta ez dira salbuespen kontsideratuko.

Akordioa aurretik

Udalak arau berria Txantxangorri elkarte eta Iturritxo auzo elkartearen arteko akordioaren gainean hartu du. Kontua da Santa Barbarako tiro-lekua, berez, udalarena dela, baina, Txantxangorri elkarteari denbora baterako utzia daukanez, Txantxangorri jestionatzen du. Joan den urtean, berriz, Latsunbeko jende asko kejatu egin zen

Santa Barbarako tiro soinu-gatik, eta udaletxera jo zuten konponbide eske.

Kejatzeko arrazoi nagusia izan zen lehen ere plenoak onartu zuela Santa Barbaran ez zirela hilean bi tirada baino gehiago egingo. Baina, hitzarmen horretatik kanpo gelditu ziren tirada edo txapelketa bereziak. Eta, beraz, auzotarrek zioten molestiak lehen bezala segitzen zuela. Arazoa kon-

pontzeko tiro-lekua tokiz aldatzea ere planteatu da. Baina, ingurugiro arauak kontuan hartuta, Hernanin ez dago tiro-leku bat jartzeko tokirik.

Tiro-lekua Santa Barbaratik aldatzea posible ez denez, Latsunbeko auzotarrek eta Txantxangorri egin dutena da dagoena nola erabili adostu. Eta horixe da udalak atzo atzo Gobernu batzordean onartu zuena. □

Mobilizazioak Segi eta Askatasuna ilegalizatzearen kontra

GARZON epaileak erabaki du Askatasuna eta Segi erakundeek ekimenak ilegalak direla, Gestora eta Haikaren segida izatea leporatuta. Erabaki hori salatzekeo *Hernaniko Gazteak* plataformak mobilizazioak konbokatatu ditu gaur eta biharko. Gaur 20:00etan manifestazioa egingo du, Gudarrien plazatik aterata. Ostiralean, berriz, borroka eguna deitu du. Manifestazioak eguerdiko 13:00etan eta arratsaldeko 20:00etan egingo dira. □

ERREMONTA

Altuna II-Etxabe finalaren bila, gaur

ERRREMONTEKO Binakako txapelketa sartu da azken txanpan. Altuna II eta Etxabek Altuna I eta Eizagirren kontra jokatu dute semifinala gaur Galarretan. Irabazten dutenek Zeberio II eta Iriarte izango dituzte finalean zain. Jaialdia 16:00etan hasiko da. □



Urumeako ikasleak Patxi Odriozolari kantari.



Ohitura Zaharrak elkarte, Deportibo tabernaren aurrean.



Ereñotzuko koadrila Lastaola baserrian, bueltan buelta jarrita.



Kantuz abesbatza Karkabako plazotelan kantari.

Santa Ageda 'buru-zuri' aurten

AURTEN ere herriko talde, ikastetxe eta koruek ez dute huts egin, eta kalez kale eta etxez etxe hor ibili dira kan-

tari. Kaleak ordea, ia hutsik. Aurten astelehena tokatu da eta antzeman egin da. Hala ere, kantu koadrilek fin kun-

plitu zuten. Sandiusterrin ere entzun ziren Santa Ageda bezperako koplak, eta Tiburtzio Odriozolak ere jaso zuen

berak mantendutako ohituraren bisita. Bestalde, ereñotzuarrek etxez etxe ibili ziren auzoan barrena. □

ZINGI-ZANGA
Jatetxea
Egunero menuak.
Afariak enkarguz.
Ostiraletan mus txapelketa.
Florida 54
Tel: 943 33 03 97

OIALUME ZAR SAGARDOTEGIA

943 55 29 38
OIALUME AUZOAN

GALARRETA ALAI FRONTOIA

Gaur, Binakako Txapelketako finalerdia:
ALTUNA I-EIZAGIRRE / ALTUNA II-ETXABE

GAUR ARRATSALDEKO 16:00ETATIK AURRERA ERREMONTA JAIALDIA:

- ⊙ 1. partidua: ZEBERIO III - REKLUSA / MATXIN III - ASTIBIA
- ⊙ 2. partidua: Txapelketako finalerdia: ALTUNA I - EIZAGIRRE / ALTUNA II - ETXABE
- ⊙ 3. partidua: EZKURRA - ETXEBERRIA III / ZEBERIO II - LIZASO
- ⊙ 4. partidua: ZEBERIO I - AIZPURUA II / IRIBARREN - BADIOLA

DENDA ARKA

OTSAILEAN

ATE eskaintza. Oraintxe duzu ATEAK berritzeko aukera. Preziorik onenak *Arkan*. Eskaera hilabete honetan eginez gero %7ko deskontua.

ARKA DENDA -KARDABERAZ KALEA 41 ☎ 943 33 34 87-

■ ATLETISMOA

Antziolako atletismo pistan argia jarri dute astelehenetik larunbatera

■ Astelehenetik ostiralera 22:15ak arte egongo da argia; larunbatetan, 20:00ak arte.

UDALAK asteartean piztu zituen Antziolako atletismo pistako argiak eta euri jasak asko lagundu ez bazuen ere bisibilitate ona gelditu da. Argiak automatikoki piztuko dira, argi-publikoarekin batera: aste barruan 22:15ak arte eta larunbatetan 20:00ak arte.

Bestalde, gobernu taldeak 2002ko inbertsioetako atletismo pistan aldagelak egiteko 60.000 euroko partida (10 miloi pta) aurreikusia dauka.

Kirol instalazioa guzti-entzat irekia da. □



Kirol pistako argiak egunero piztuko dira, igandean izan ezik.

■ PELOTA -Binakako txapelketa-

Esnal-Elola / Garzia-Galardi, bihar Hernanin

BINAKAKO txapelketako partidua jokatu da ostiralean Hernanin. Esnal-Elolak Garzia-Galardiren kontra jokatu dute final zortzirenetako partidua. Esnalek Kronikari esan

dionez, beren burua ondo eta ilusioz ikusten du kanporaketa pasatzeko.

Aurretik, Milikua-Oar Arteta Binakako partiduaren aurretik,

beste bat jokatu da: buruz buruko txapelketako enpresa barruko eliminatoria, kanta osoan: Milikua Oar Artetaren kontra. Pelota jaialdia: gaueko 22:30etan. □

Berrehun kalderero inguru atera dira aurten Elur-Txorirekin

■ Kalez kale ibili ziren gazte eta nagusiak, txaranga lagun hartuta.

ASPALDIKO jenderik gehientsuena bilduko zen aurten-go kaldererotan, herrian barrera. Elur-Txorin afalduta irten ziren batzuk; etxean afaldu zutenak elkartu zitzaizkien haieri eta urteroko buelta egin zuten herrian barrera.

Elur-Txorin gustora

Kantu eta musika kalean ibili eta plazan bukatu zuten ibilia, alkatearen ongi etorriarekin. Mikel Armendariz Elur-Txoriko lehendakari berriak esan digunez "oso giro ederra sortu zen, eta gustora gaude". □



Plazan bildu zen jenderik gehiena, kalderero eta ikusle (Arg: Biyok).



Gazte eta heldu batean kantatu zituzten kaldererotako kantak; aurten denak euskeraz.



Martin Idarreta bere tailerrean.

Martin Idarreta hil da. Martin Idarreta astelehenean hil zen 78 urte zituela. Martin harakina zen ofizioz eta jubilatuz ezkerroztik artisaun lanak egiten zituen Atzietako bere tailerrean. 2001ko Karmenetan Kaxko auzo elkarteak Andrekaleko *Alkate makila* -Martinek berak 4 urte lehenago diseinatutako makilaman zion Martin Idarretari bere garain Karmen jaiak antolatzen egindako lanagatik. Martinek Manuel Olano *Mallu* zenaren eskutik jaso zuen makila. Martin Idarretaren arimaren aldeko hileta asteazkenean izan zen Juan Bataiatzailea parrokiari. □

■ HITZ BITAN

✓ UMEENTZAT TAILERRAK AUZOETAN

Latsunben eta Portun, gaur. Auzoetako umeentzat tailerrak astelehenean hasi ziren Ereñotzun. Gaur, Latsunben, eta Portun izango dira, 18:00etatik 20:00etara. Bihar, berriz, Zikuñagan, Florian eta Antziolan.

✓ OSASUNARI BURUZKO ZIKLOA

Hitzaldia gaur. "Tratamentu medikuei alternatibak" azalduko ditu gaur Txema Pierola *Sumendi* taldeko adituak. Gaur, arratsaldeko 19:00etan Biterin. □

IRRATIAK

(F.M. 99.2) 11:45: Auzoetako haur tailerrei buruz Pello eta Luzirekin 12:00: Txema Pierolarekin Osasunari buruzko hitzaldiaz 23:00: Kale Kantoiari literatur saioa.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

▶ Taxiak: 943 550093
▶ Udaltzaingoa: 943 333288
▶ DYA: 943 464622
▶ Autobusak: 943 556662
▶ Anbulatorioa: 943 557750
▶ Jokalari anonimoak 943 331103

☎ FARMAZIAK

▶ Egunez: Chucla Kardaberaz 48 ☎ 943 551793
▶ Gauez: Gorospe Andoain. Rikardo Arregi 12 ☎ 943 592415

HERIOTZAK

Carmen Lopez Sasberro

Asteazkenean hil zen 70 urte zituela

Hileta elizkizuna gaur, osteguna, arratsaldeko zazpitan Juan Bataiatzaile parrokiari

ESKELAK

† INAZIO OIARBIDE MARCO

JAUNA

Astelehenean (otsailak 4) hil zen, Hernanin, 63 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta.

-Goian bego-

Haren animaren zuzendaria; Emaztea: Josefa Antonia Goizueta Izagirre. Seme-alabak: Mila eta Joxe Mari, Juan Manuel eta Bego eta Joxe Inazio eta Rosa. Bilobak: Ohiane, Ander eta Gorka; anai-arrebak: Joakina eta Felix, Joxe Mari eta Maria Jesus, Florian eta Rosa, Maria Antonia eta Migel Angel; Milagros eta Eladio, Cristina eta Nelson eta Juan Antonio (Petraren alarguna), ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak. Haren animaren alde otoi egiteko eskatzen dizuete.

Hernanin, 2002ko otsailak 7

Helbidea: Fagollaga auzoa, 62

IRAGARKI MERKEAK

Klase partikularrak ematen ditut. DBH arte asinatura guztiak. Interesatuak deitu: 636 170877 Itzalai.

Neska bat behar dut umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko Ordutegia: 8:00etatik-14:30etara. Interesatuak: 943 55 46 17